

## HEMEROTEKA ▶

## PSOE eredugarri

«Bi egoera desatseginek nire animoak zapuztu zituen pasa den larunbat arratsaldean. Hain zuzen, nire lehen atsekagea Espainiako politikako hainbat alorretan finkatu den politika identitate areagotzetik dator. Horren adibide, pasa den asteburuan euskal Udala den Lizartzan gertatu zena, non bere alkatea, Regina Otaola heriotz mehatxuak jaso zituen ero talde baten eskutik. Alkate hau bere herrian legea betetzea agintzeagatik eta bertako udaletzeko balakoian Espainiako bandera zintzilikatzeagatik iraindu eta erasotu zuten.

Alkateari deitu nion nire elkartasuna adierazteko, eta ondoren, Zapatero presidentearekin hitz egin nuen, ea gertatutakoa, fiskaltzak eskua sartu gabe, isilpean jasan behar ote genuen galdetzeko. Agintari batek heriotz mehatxua jaso eta ezer ez gertatzean Espainiako gizartea gaixotu egingo litzatekeela gaineratu nion. Presidenteari entzuteak eta bere lekuan dagoela ikusteak poztu egin ninduen. Bere hitzak lasaigarriak eta bareak izan ziren: Pepe! fiskalari deitu diot dagoeneko».

JOSE BONO ▶ EL PAIS (2007/09/11)

## GUTUN@K ▶

## Beotibarko gudua

Beotibarko gudua gertaera. Beotibarko gudua, 1321eko irailaren 19an gertatu zen. Nafarroako Erresumak armada bat prestatu zuen, Tolosaldeko oinaztarrek hartu zuten Gorritiko gaztelua berreskuratzeko. Lekunberrira iritsi zirenean nafarrak, oinaztarrek gaztelua utzi, erretiratu, Beotibarren zelatan gelditu eta bertan garaipea lortu zuten. Zorigaiztoko anai-arreben arteko borroka hartan, jauntxoaren interes sasi-feudalak defenditzen odol euskaldun asko isuri zen. Horregatik, Beotibarko gudua ezin ospatzeko gertaera da.

Tolosako Ezker Abertzaleak data hori baliatu nahi du, euskaldunen arteko borroka eta Euskal Herriaren aurkako erasoak gaitzesteko; bakebidea eta euskal lurraldeen arteko batasuna eraikitzeko; Tolosaren nafartasuna eta Nafarroaren estatu izaera aldarrikateko. Iruñeko Erresuma lehenik, eta Nafarroako Erresuma izenarekin ondoren, Euskal Herrian izan den egitura politikorik luzeena eta zabalena 824 eta 1512 urte bitartean iraun duen Nafarroako Erresuma baita.

1200 urtean, Gaztelak kon-

kistatzen du Nafarroako Erresumaren mendebaldea.

Gaztelak, 1200ean Nafarroako Erresuma militarki erasotu zuen eta gaurko Araba, Bizkaia eta Gipuzkoa konkistatu zituen. Gaztelaren interesa Itsasorako bide segurua lortzea zen, bere artilea Europako merkatuetara bidaltzeko. Herri berri harresituak sortu zituen, (Kanpezu, Gasteiz, Agurain, Segura, Tolosa, Hernani, Hondarribi, ...) bertan biltegiak eta leku seguruak izateko. Sorreran, herri berri horietan kanpotik ekarritako frankoak banarik biziko dira; bertako euskal biztanleak baztertuak izango dira eta euren foruei lotuta jarraituko dute bizitzen.

Gaztelak, 1256an, herri berriei *Hiri Gutuna* eta *Foru Berriak* eman zizkien, 1200eko konkistak sortu zuen muga berria defenditzeko eta Nafarroako Erresumaren mendebaldea bereganatzeko. Horrek, Nafarroa-Euskal Herria bi zatitan banatzea ekarri zuen. Handik aurrera, Tolosak eta Gipuzkoak Nafarroaren aurkako borroketan parte handia izango dute Gaztelaren alde. Hala nola, Belaten 1512an, eta Noainen 1521ean.

Mundua bezain zaharra da zapaltzaileak zapalduta zati-tzea. *Elkartasunik gabe inda-*

*rrik ez* dio atsotitzak. Halaxe gertatzen da Euskal Herrian, Palestinan edo Iraken. Horregatik Ezker Abertzaleak, Tolosaren 750. *urteurrena* arbuizatzen du. Inork ez baitu ospatzen bere nazioaren indarrezko menderakuntza.

Gure nazioaren menderakuntzak eta lurralde zatiketak izaera erasokorra eta iraunkorra dute. 1200, 1512, 1841, 1876, 1936, 1978, 1979, 1982ko gertaera politikoei gaurkotatzen dute: Euskal Herriaren nazio izaera ukatzeko, 1200 urtean hasitako lurralde zatiketak eta indarkeriak diraute gaur egun ere. Espainiak eta Frantziak daragite bertako zenbaiten laguntzarekin. Euskal Herrian den gatazka politikoa eta armatuak sustrai historiko sakonak ditu.

Nazio eskubideak, justizia, berdintasuna. Baina Euskal Herria ez da gaurkoa. Pirineoen bi aldetan bizi da historia aurretik Euskal aztarnak orain dela 40.000 urte datatzen dira. Euskara da bertako hizkuntza, aspaldiko Europaren kultur aztarna bizia. Eta lehen unitate politikoa 824an kokatzen da Nafarroako Erresuman.

Tolosako EAE-ANV-k, ekimen xume honen bidez, gure naziotasunaren aldarrikapena plazaratu nahi du. Bakea ez

baita indarkeriaren bukaera soilik; nazio eskubideen hasiera, justizia eta berdintasuna ere izan bai baita. Baina horretarako, ezinbestekoa da geure arteko borroka baztertzea, konpromiso nazionala hartzea eta tinkotasun politikoa erakustea. Konponbide demokratikoa eraikitzeko, Euskal Herriaren eskubideak errespetatzeko eta gatazka politikoa gainditzeko. Geure esku dago.

INAXIO AGIRRE (TOLOSAKO EAE-ANV) ▶ TOLOSA

## Tolosa eta errepideko mendiak

Egia da, azken aldia Tolosako errepideetan ibilgailuen abadura motelteko erreduzitzaile ugari jarri dituztela, eta herri-tar asko kexatuz agertu dira hori dela-eta. Bai, agian, gehiegi ari dira jartzen, eta autoan zoazela herrian baino mendian zaudenaren sentsazioa duzu; baina, zerbait egin beharra zegoela uste dut, eta ez dakit biderik egokiena zen, baina, behintzat horrela jendeak mantsuago gidatzen du orain. Ados ez dauden esan dezatela zer egin daitekeen.

IRENE OLABERRIA ▶ TOLOSA

## KOMIKIA ▶

GORKA SALABERRIA



GIZARTEA ▶

# Jesus Elosegiren omenez

‘Jesus Elosegi 1907-1979’ liburuaz gain, bere argazkiekin osatutako erakusketa dago Aranburun



**Argazkilaria.** Bere jakin-mina harritzen zuen guztiaz maiteminduta, artista gisa zituen dohainez gain, Jesus Elosegik argazkigintzari kazetari eta historialari gisa zituen ezaugarriak eman zizkion. Argazkian, bera ikus dezakegu, ispilu aurrean, 1933an. JESUS ELOSEGI



**Tolosa.** «Tolosakoa betidanikoa» zela dio Ramon Labayenek bere osaba Jesus Elosegiz mintzo denean. Denboraldi luze batez bere herritik kanpo egon behar izan zuen arren, azken urteak bizitzera bueltatu zen. Irudian, uholdeak Tolosan, Rondilla kalea ikus daiteke 1933 urteko ekainaren 16an. JESUS ELOSEGI



**Ikertzailea.** Bere bizitzako zati garrantzitsu bat Aranzadi da. Berea izan zen Elkarreak izen hori eramatearen ideia. Irudian, Jose Migel Barandiaran eta Jesus Altuna Lezetxikin, 1967. urtean. JESUS ELOSEGI



**Mendia.** Jesus Elosegiren zaletasun guztietatik mendiari zion maitasuna nabarmentzen da. Argazkian, Txindoki azaltzen da, Gaintzatik ikusita. 1932ko apirilaren 14an atera zuen. JESUS ELOSEGI



**Familia.** Policarpo Elosegi eta Maria Irazustaren seigarren semea izan zen, tolosar peto-petoa. Irudian, Policarpo, Julian eta Jesus Elosegi ispilu aurrean, 1932ko urriaren 11n. JESUS ELOSEGI



**EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

HILBERRIAK  
URTEURRENAK  
ESKERTZAK

Tolosaldeko eta Leitzaldeko  
HITZAn jarri eta Gipuzkoako  
beste 4 Hitzetan DOAN  
agertuko da

HITZAK GIPUZKOAN  
120.000 IRAKURLE

ESKELAK  
19:00ak arte hartzen dira  
tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info  
Tel.: 943 65 56 95

hilberriak ▶



**Bonifazio Mutiozabal Begiristain**

Ez agurrik  
ez adiorik  
gero arte baizik




Zarauzko Amnistiaren Aldeko Mugimendua

ZARAUTZ, 2007ko irailaren 16a



## IBARRA ▶ KULTURA



## 'Alurr' liburua aurkeztu dute

A. Imaz ▶ Herenegun Kultur Etxean Ibarra dantza bizi eta bultzatu duten jende ugari bildu zen. Alurr dantza taldeak aurkeztu berri duen liburua gertutik ezagutzeaz gain, «familia handi bat» direla erakutsi zuten, urteetan zehar Ibarra dantza bultzatu dutenek. A.I.

## IBARRA ▶ GIZARTEA



## Atzokoan, toka txapelketa

A. Imaz ▶ Bizi-Nahi jubilatuta elkarteak antolatutako jaiak gaur amaituko dira. Ostegunean ekin zioten ospakizunak, gaur 14:00etan lagunarteko bazkaria eta 19:30ean burutuko den ekitaldiarekin emango diote jaiak amaiera. A. IMAZ

## LIZARTZA ▶ GIZARTEA

# «Oztopo guztiak gaindituz, festa on batzuk igaro ditugu»

Lizartzako Jai Batzordeak jaien inguruko balorazioa egin zuen babes handiarekin

## ASIER IMAZ

Lizartzako Jai Batzordeak, herritar ugariaren babesarekin, herriko jaien inguruko balorazioa plazaratu zuen herenegun.

Irailaren 7, 8 eta 9an egin diren festa egunak, «bizi den egoera antidemokratikoa emango ez balitz, ezin hobekak izan direla esan genezake». Jai Batzordeko kideek, «oztopo guztien gainetik» herritar, musikari, bertsolari eta orohar gerturatu direnei eskerrak eman nahi izan dizkie, «guztion artean, oztopo guztiak gaindituz, lizartzako seme-alabek antolatutako festa on batzuk igaro ditugulako».

Jaien haseran bizitako gertaerak ez zituzten ahaztu balorazioa egiterako unean, «halaber, ozenki salatu behar dugu, la-saitasuna zapuztuz Regina Otaolak egin dituen probokazio ekintzak. Lizartzan Euskal Herriko gatazkaren irudia ikusi dela» esan zuten. Espainiako



Jai batzordeko kideek prentsaurrekoa eman zuten herritarrez inguratirik Lizartzako plazan. A. IMAZ

banderarekin eta Sagrarioko ama ermitan «bizitako umilazioa eta zapalkuntza» gogoratu zuten, «honek sortutako ondorioak» azpimarratuaz. «Otaolak herri honi eskaini dion gauza bakarra, 3 herritarren epaiketa eta beraien aurkako salaketa neurrigabeak izan dira. Honen aurrean gure babesa eman nahi diogu 3 auzi-

petuei». Alderdien Legea eta Joseba Egibar (EAJ) ere gogoran izan zituzten, «erantzukizunak» banatzeko garaian, izan ere, «egun Lizartzan gertatzen dena, Alderdien Legea diseinatu eta aplikatzen duten alderdi politikoek dute. Eta guztien gainetik, Joseba Egibar eta Regina Otaolak». Jai Batzordeak, «gora lizartzako festak eta

aurrera bolie!» oihukatuz amaitu zuen jaien balorazioa irakurketa.

## Batasunaren balorazioa

Marije Fullaondo eta Karmele Aierbek, Batasunaren izenean, Lizartzan gertatutako balorazioa egin dute. «Regina Otaola jaietara herriari iseka egitera joan da, Javier Balzaren mutilen kolaborazioarekin. Lortsagarria da demokraziaren izenean, herriaren erabakiak zigortu eta jarrera faxistak babestea. PPK eta PSOEK, eta ezer egiten ez duten besteek inposatu nahi duten sasi demokrazia da», adierazi zuten.

## TOLOSA ▶

## Zerrenda eta aukera izugarria azokan

PABLO ALBERDI

Garagardo Azoka izan dela eta, atzoko azoka desberdina suertatu zen Tolosan. Postu batzuen tokia aldatu egin behar izan zen, eta honek ez zuen eragin ona izan saltzailer batzuentzat. Halere, bisitari guztiak animatu ziren, produktuen zerrenda eta aukerak ikusita.

Perretxikoen zerrenda adibidez egundokoa izan zen. Onddo asko aurkitzen ziren, dirudienez gainera, gehienbat gure inguruan jasotakoak. Kuletro kilo batzuk, gibelurdinak eta ziza horiak ere salgai izan ziren.

Barazki zerrenda ere oso zabala izan zen. Udarako produktuei, neguko espezieak gehitzen dihoaz, eta honek oso aukera zabala sortzen du.

Fruitu postuetan berriz, aipatzeko gauzak ikusi genituen; udareak, matxakanak, urrak, intxaurrak, pikua eta sagar asko. Itxura denez, aurtengo sagar zerrenda zabala izango da.

## ATZOKO AZOKA ▶

	merk.	gares.
<b>Berdura Plaza</b>		
Gerbera	12,00	-
Hortentsia	12,00	-
Lobelia	4,50	-
Xarbota	4,00	6,00
Salbia	1,00	1,20

## Bertako produktuak

Ziza horia	18,00	-
Onddo	12,00	30,00
Gorringo	25,00	-
Gibelurdina	25,00	-
Sagarra	1,00	-
Udarea	1,00	-
Matxakana	6,00	-
Lekak	2,50	3,50
Porruak	1,00	10,00
Txikoria	1,00	1,25
Tolosako babarruna	8,00	10,00
Babarrun zuria	6,00	8,00
Tomatea	2,00	4,50
Urta	2,00	3,00
Kiwi	3,00	-
Ardi gazta	14,00	18,00

## Produktu ekologikoak

Kalabaza	1,60	3,04
Aza	2,50	3,00
Kogoiola	1,00	-
Ahuntz gazta	3,00	-
Sagarra	2,00	3,00
Arbi morea	4,00	-
Intxaurrea	4,00	6,00
Txitixioak	2,40	-

**TOLOSAN ZEINU HIZKUNTZA IKASTAROA (07/08)** Antolatzailea: Tolosaldea-Goierriko Pertsona Gorren Elkarte

Hasiera: 2007ko urriaren 1ean • Amaiera: 2008ko maiatzaren 29an. Ikastaroak arratsaldez dira

Argibideak: 943 67 03 81 - 666 637 158  
(bulegoko ordutegia 09:30-13:30 / 15:30-19:30)

Oharra: Lortutako ziurtagiriak Madrilgo CNSEren baliozkotasuna izango du (bere barne Euskadiko Pertsona Gorren Federazioa)

TOLOSA ▶ MAHAI TENISA

## Euskal Herriko Taldekako VI. Txapelketa

Atzo Usabal kiroldegian Euskal Herriko Mahai teniseko Taldekako VI. Kopa jokatu zuten. Bertan, Euskal Herriko 20 talderik onenak leihatatu ziren, eta tartean zen eskualdeko Usabal MT taldea. Goizean jada 4 talde kanpoan gelditu ziren eta gainontzeko 16ak egun osoan zehar lehiatu ziren horretarako prestatu zituzten 12 mahaie-tan. Lehenengo Leka Enea (Irun) gelditu zen eta bigarren, Gasteiz (Gasteiz), n.g.



JAIK ▶

# Amaitu dira jaiak Alkizan, eta Alegian gaur agurtuko dituzte

Alkizan atzo arratsaldean herri kirol saioa egin zuten gazteek Ion Zabala eta Izaskun Mendizabalen oroimenez



12 urtetik beherakoek krosa, Alegian. N. GARZIA



Herriko gazteak herri kirolotan. N. G.

NAIARA GARZIA

Inguruko herrietako jaiak pixkanaka amaitzen doaz. Alkizan, esaterako, bi asteburu jaietan murgilduta pasa ondoren, atzo amaitu ziren. Alegian, aldiz, gaur oraindik herritarrek hainbat ekitaldi izanen dituzte eta 22:00etan eginen duten mus txapelketarekin festei bukaera emanen diete.

Alegian atzo 13:00etan krosa egin zuten. Orotara, 54 pertsona aritu ziren eta antolatzaileek azaldu dutenez, «inoiz baino jende gehiagok hartu du parte aurten» eta ez da marka kaxkarra, krosa 1978. urtean eginen hasi zela kontuan hartuz gero.

Atzo kirolak izan ziren protagonista Alegian arratsaldean ere, pala txapelketa egin baitzuten pilotalekuan. Gauean, aldiz, bertso saioa egin zuten Hamaika Bertuteren eskutik. Unai Muñoa, Aitzol Barandiaran, Uxue Alberdi eta Ifaki Gurruixaga bertsolariak aritu ziren. Gai jartzailea Iker Iriarte izan zen. Gaur, berriz, hainbat ekitaldi izanen dituzte Kaleberan: dantzarien emanaldia, txakolin probaketa, bazkaria, umeen pilota partidaren finala eta palako finala, zahagi ardoa, eta mus txapelketa.

Alkizan atzo arratsaldean eta gauean egindako ekitaldiekin amaitu dituzte jaiak. 18:00etan herri kirol saioa egin zuten Ion Zabala eta Izaskun Mendizabalen oroimenez, eta bertan herriko gazteek parte hartu zuten. 20:30ean herri afaria egin zuten Ostatu jate-txean, eta aurretik, sagardo dastaketa. 23:00etan Dark Avenue, Izeba Pilarren Ilobak eta Nunbait taldeen kontzertuekin hurrengo urtera arte agurtu zituzten jaiak.

TOLOSA ▶

## Mugikortasun Iraunkorraren Astea, gaurtik aurrera

N. GARZIA

Mugikortasun Iraunkorraren Astearen barruan gaur Pedalaren Eguna izango da Tolosan. 11:00etan, Oriako Txirrindulari Eskolak antolatuta, txirrindulari proba eginen dute herrian zehar. 3 maila ezberdin egonen dira: 5-8, 9-10 eta 11-12 eta sariak banatuko dituzte.

Bihar, berriz, mugikortasunari buruzko mezuak dituzten banderak jarriko dituzte Tolosan zehar.

ZUZENKETA ▶

Atzoko alean Nazioarteko Ardi-txakur lehiaketa gaur (hilaren 16) zela esaten zuen, baina datorren igandean izanen da, hilaren 23an, Oñatin.

TELEFONOAK ▶

Larrialdiak. ((112)) Osasuna.

- ▶ Alegialdea. Osasun z.: 653212
- ▶ Anoeta-Alkiza-Hernalde. Medikua: 65 23 39
- ▶ Asteasu. Medikua: 692423
- ▶ Baliarrain. Medikua: 889003
- ▶ Berastegi-Elduain. Medikua: 683361
- ▶ Bidegoian. Medikua: 681134
- ▶ Ibarraldea. Osasun etxea: 672411
- ▶ Ikaztegieta. Medikua: 653329
- ▶ Irura. Osasun zentroa: 690720
- ▶ Leitza. Osasun z.: 948 510800
- ▶ Orendain. Medikua: 655595
- ▶ Oresa. Medikua: 682228
- ▶ Tolosa.

- ▶ Anbulatorioa, larrialdia: 461111
- ▶ San Esteban: 006800
- ▶ Gernikako arbola: 006900
- ▶ Amaroako dispen.: 672637
- ▶ Asunzion Klinika 675799 - 67 53 90 (larrialdiak)

- ▶ DYA: 672536
- ▶ Gurutze Gorria: 674888
- ▶ Villabona. Anbulat.: 006970
- ▶ Zizurkil. Aiztondo zerb.: 693930

- Garraioak.**
- ▶ Renfe: 902 24 02 02
  - ▶ Donostiako autobusa: 361740
  - ▶ Tolosaldea bus: 650621
  - ▶ Leitzaran autob.: 948 221015
  - ▶ Taxia: 670420
  - ▶ Taxia (Leitza): 608 873016
- Besterik.**
- ▶ Ertzaintza: 538820
  - ▶ Tolosa-Udaltzaingoa: 675858
  - ▶ Tolargi: 650016
  - ▶ Iurramendi egotza: 670325
  - ▶ Tolosa gasa: 675320

iragarki laburrak ▶

**LANA**

**Zaintzailea.** Etxeko lanak egin eta bi haur zaintzeko emakumea behar da goizeko 8:00etatik 15:00etara. 628 22 65 30.

**Pilates irakaslea.** Lizartzan pilates irakaslea behar dute. Interesatuak bidali C.V. [ongizatea.lizartza@udal.gipuzkoa.net](mailto:ongizatea.lizartza@udal.gipuzkoa.net) helbide elektronikora edo deitu

943 67 07 00 zenbakira. Epea, irailaren 21 arte.

**ESKUALDAKETA**

**Loradenda.** Loradenda eskualdaketa jubilazioagatik. Laneko materialarekin. Errenta zaharra. Toki ezinhobean. Prezioa: 18.000 euro. Interesatuak deitu zenbaki hauetara: 943 36 75 75/626 50 56 89.

**SALGAI**

**Autoa.** BMW F 650 GS, papeletan limitatua, 2005eko, 15.600 km, ABS, warning, topcase, maleta. Egoera oso onean. 6.300 euro. 656 71 96 57.

**Musika katea.** Technics musika katea merke edo 21"tako TV-ren truke. 688 63 71 13. 21:00etatik 22:00etara.



**AGENDA** ▶

**DEIALDIAK**

**Alegia.** Kalebeherako jaien baitan, 12:00etan dantzarien emanaldia izango da; 12:30ean, txakolin probaketa eta sardina erreka; 15:00etan, bazkaria; 17:00etan, piota eta pala partidak; 21:00etan, zahagi ardoa; 22:00etan, mus txapelketa.  
**Ibarra.** Urtero bezala, Izaskun izena dutenek bere festa izango dute Izaskunen: toka txapelketa, meza eta bazkaria Izaskun jatebtxean. Izen ematea, 943 675927 telefono zenbakian.  
**Tolosa.** Aitzol euskaltegiaren 25. urtemugako bazkaria izango da Zerkausian datorren igandean, hilaren 23an. Izen-ematea, 943 651006 zenbakian.

**ERAKUSKETAK**

**Tolosa.** *Jesus Elozegi 1907-1979* argazki erakusketa ikusgai dago Aranburu Jauregian urriaren 6ra arte.  
**Tolosa.** Gotzon Etxeberriaren *Olibondoak badu bihotzik* eta Josep M. Codinaren *Orografia Personal* pintura eta eskultura erakusketa dago ikusgai Aranburu Jauregian urriaren 6ra arte.  
**Zizurkil.** Elbarrena auzoko Arantzazuko Ama elizaren 50. urtemuga dela eta, argazki erakusketa dago ikusgai Atxulondo kultur etxean.

**ZINEMA**

**Tolosa.** *Harry Potter* filma emango dute Leidor aretoa 16:30ean. 19:30ean, berriz, *Next* filma izango da ikusgai. Bihar, ikuslearen eguna, *Next* filma izango da 20:30ean.

**GUARDIAKO FARMAZIAK**

**Gaur**  
**Tolosa.** Etxebeste, JM. Gernikako Arbola, 3. 943 651040.  
**Goizueta.** Apeztebea, L. M. Kale Nagusia, 64. 112.  
**Arribe.** Garmendia, A. Kale Nagusia, 112.  
**Bihar**  
**Tolosa.** Morant, R. Zabalarreta, 1. 943 673649.  
**Leizta.** Plaza, M. Elbarren, 36. 112.  
 ▶ HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

# Paisaia zoragarrien bila

**HITZA ARGAZKI LEHIAKETA** ▶ Ipar Irlandan izan da Patxi Goñi, eta Jon Sagredo, berriz, Guatemalan; biek ere irudi zoragarriak bidali dizkigute lehiaketarako

**IPAR IRLANDA** ▶

**Patxi Goñi (Iruñea).**

Argazki hauxe bidali digu Patxi Goñik Argazki Lehiaketan parte hartzeko. «Argazki hau Ipar Irlandan ateratakoa da. Lau leitzarrek in joan nintzen eta paraje zoragarriak ikusi genituen. Jendea ere oso jatorra da bertan».



**GUATEMALA** ▶

**Jon Sagredo (Ibarra).**

Argazki benetan ikusgarria bidali digu ibartar honek. «Guatemalako Pacaya sumenditik laba ateratzen ikusi ahal izan genuen. Metro gutxira hurbiltzea lortu genuen argazki atera ahal izateko. Bero handia egiten zuen, baina halere zoragarria izan zen lurrraren barneko elementuetatik hain gertu egotea», dio Jon Sagredok.

**AGURRAK** ▶



**URTE ASKOTAN**  
 Unai. 4 urte. Zorionak eta muxu handi bat familiaren partetik.

**Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago ondoko leku hauetako batera. Mila esker.**

- ▶ HITZAren egoitza TOLOSAN Araba etorbidea, 5 behea
- ▶ HITZAren egoitza LEITZAN Udaletxeko bulegoa

**hitza**  
 agurren tartea

Urtebetetzeak, urrezko ezteiak, ezkontzak, jaioberrriak...

**AITZOL**  
 UDAL EUSKALTEGIA

**Matrikula zabalik irailaren 3tik 21 era**

**ORDUTEGIA: 10:00 - 13:00 17:00 - 20:00**

**Euskara zure neurria**

Euskalduntzen - Alfabetatzen - EGA - Hizkuntz eskakizunak - HABEren azterketak euskaltegian bertan...  
 Betiko taldeak: euskaltegian, lantokietan, ikastetxeetan...  
 Autoikaskuntza: zeuk erabaki non eta noiz

**Helbidea:** Gorosabel 34-B 3.a  
**Tel.:** 943 651006 - 943 652343 **Faxa:** 943 651244  
**posta elektronikoa:** aitzolue@tolosakoudala.net